

Crocsmia × *crocsmiiflora*: KROKOSMIA

Crocsmia × *crocsmiiflora*: identifikazioa

Landare iraunkorra da, 1 m-raino irits daiteke eta makoila edo multzo txikiak osatzen ditu. Hostoek zinta itxura dute eta 40 cm-ko luzera eta 2 cm-ko zabalera har dezakete. Loreak, laranja edo gorrixka kolorekoak, 10-20 unitate inguruko buruxketan biltzen dira. Maiatzetik abuztura bitartean loratzen da. Errizomak eta erreboilak ditu.



Ingurune hezeetan ohikoa da eta oso ondo egokitzen da ibaiertzetan. Gure eskualdean lurpeko organoen bidez ugaltzen da. Izozteek landarearen aireko zatia soilik hondatzen dute.

Crocsmia × *crocsmiiflora*: jatorria eta kokapena

1880an Frantzia sortutako hibridoa da. Landare apaingarri gisa erabiltzen da eta basatia bihurtu da Amerika, Europa, Asia eta Ozeaniako herrialde epel anitzetan. EAEn kantauriar isurialdean 350 m-ko kotatik behera agertzen da, eta bertan ugaitu egin da zenbait eremutan.

Crocsmia × *crocsmiiflora*: arriskugarritasuna, eragina eta egoera

Krokosmia landare **inbaditzaile eraginkorra da** modu asexualean sakabanatzeko duen gaitasun handiari esker. Eremu batean sartzen bada azkar heda daiteke **oso populazio trinkoak** eratuz. Hauek lurra estaltzen dute eta bertako espezie belarkarak ordezkatzeko dituzte.

Crocsmia × *crocsmiiflora*: kontrol eta kudeaketa metodoak

Landarea desagerrarazteko hurrengo jarduerak burutu behar dira:

- Aleen erauzketa aitzurraren laguntzaz, landarearen lurpeko zati guztiak kenduz
- Errizoma edo erreboilaren bat gera daitekeenez, kimuak kentzen jarraitu behar da sasoi berean eta ondoko urtean

Lehen tratamenduaren ondoren, bertako espezieak berlandatu behar dira lehia sustatzeko eta landaredi naturala berreskuratzeko.

Hondarrak ez dira inon utzi behar. Poltsa hermetikoetan eraman behar dira balorizazio energetikoaz arduratzen den zentro eskudun batera.